

Liburuen dorre herrena

MIRIAM LUKI

Nazioarteko egunak agian aitzakia besterik ez dira jada gai bati buruz hitz egiteko. Gaur Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta liburuak lehenengo planora ekartzea zilegi da. Paperezko liburuak liburu digitalen bidezidorretan desagertuko direla dioten apokaliptikoak badira egun. Baina, telebistaren agerraldiak irratia desagertarazi al zuen?

Egia da edizio kostuak zeharo murrizten dituela sareak, paperik gabe, liburu digitalak zabaltzeak apenas ez baitu kosturik. Baina gauean, ondo jarritako bi burukiren altzoan, liburu bat eskuartean hartzeak duen xarmari adio esateko prest al gaude?

Urretxuko eta Zumarragako liburutegietan liburu asko ateratzen direla diote arduradunek, gehienak gaztelaniaz. Euskarazkoak beti omen dira erdarazkoen lehengusu pobreak.

Liburu saltzaileekin hitz eginda, gauza bera: Liburu salmentan ez dugu krisirik sumatu. Egia da poltsikoko formatoa oso ondo saltzen dela merkeagoa delako, baina liburuak saltzen ditugu. Euskarazkoei buruz galdetuta erantzuna berdina da: Oso gutxi. Atxagaren eta Lertxundiren liburu berriak oso ondo saldu ditugu, baina gure ustez euskarazko irakurleek Durangon erosten dituzte, nobedadeak batik bat. Euskarazko literatura dorrearen gainean aurkitzeko umeen literaturara jo behar da. Hor bai, euskarazko liburuak dira nagusi liburutegietan zein liburu-dendetan. Transmisioaren bidea ondo egin izanaren seinale ote?

Etorkizuneko irakurleak

Nerabeek ezer gutxi irakurtzen dutela esango nuke, neskek mutilek baino gehiago. Baina orain ume direnak etorkizuneko irakurle izango direla pentsatuta, haiek euskaraz eta erdaraz berdin irakurriko dutela esango nuke. Helduon artean euskarazko literatura irakurtzeko esfortzu berezi bat egin behar dugulakoan nago, hori sentitzen dugula uste dut.

Irakurketa sustatzeko

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harian Zumarragako Udalak ipuin kontaketa antolatu du gaurko, udal liburutegian. Maite Franco kontalaria izango da lau eta sei urte bitarteko hurrei ipuinak kontatzen. Euskaraz egingo du saioa, eta kultur etxean gonbidapenak jasotzeko egun batzuk baldin bazeuden ere txartelak egun bakarrean amaitu ziren. Beste seinale bat ote? Bihar kale liburutegia eta azoka jarriko dute Areizaga-Kalebarren plazan. Udalek mahai batzuk prestatuko dituzte edonork liburuak salgai jar ditzan.

Irakurtzen duen jendeak asko irakurtzen duela argi dago. Hizkuntzen hautuak herrentasunak sortzen ditu, ordea, oraindik ere.